

GOIZEAN GOIZ ESNATU NAIZ
OHETIK KOMUNERA NOA, ALAI.
ARROPA JANTZI, POLITA JARRI!
GOSARIA HARTU, ZEIN EDERKI! ¹

¹ OHARRA: esaldi bakoitzean keinuak egin.

ETXEAN TEILATUA DAGO.
TEILATUAN TXIMINIA DAGO.
TXIMINIAN KEA.
KEAN, ATXIS-ATXISKA,
TXORI BAT,
TXORI BAT, HEGAN. ²



² OHARRA: Esaldi bakoitzean, teilatua, tximinia eta kea eskuekin irudikatu.

HIRU TXERRIKUMEAK

HARRIA

BURDINA

EGURRA

HORMA

TEILA

LEIHOA

ATEA

LAN ETA LAN

JO ETA KE

ETXE BERRIA

EGIN ARTE

BERANDU JAIKITZEN NAIZ,
GOSALTZEKO.
BUKATU ETA BEREHALA
BUELTATZEN NAIZ OHERA.

BEGIAK IREKI ORDUKO,
MAHAIA JARRITA DAGO.
AZKAR-AZKAR JATEN DUT,
BERRIZ LOTARA JOATEKO.

GEROAGO ASKALDU,
ETA LOTARA, KORRIKA.
EZ NAIZ INOREKIN JOLASTEN,
EZ NAIZ KALERA JOATEN.

AFARIA BUKATZEN DUT.
NEKA-NEKA EGINDA NAGO.
AZKAR-AZKAR NOA,
BERRIZ ERE LOTARA.³

³ Fernando Alonso, *Fantasia*, Aizkorri argitaletxea (moldatua).
Oharra: zutik antzeztu denon artean.

ERLOJUAK “TIK-TAK”
ATEAK, IXTEAN, “DANBA”
TXILINAK “DIN-DAN”
KAFETERAK “BOR-BOR”⁴

⁴ *Fantasia 4* liburua.

NIRE ETXEAN

SUKALDEAN JAN,

LOGELAN LO EGIN,

BAINUGELAN

HORTZAK GARBITU,

ETA ATETIK

ALDE EGITEN DUT. ⁵

⁵ *Fantasia 4* liburua (moldatua).